

Ikasgelan sortzen diren elkarreragin-motak eta hizkuntz garapena

*Maria Adelaida Jurado Spuch
(La Lagunako Unibertsitatea)*

*Bigarren hizkuntzak ikasteko gelatan burutzen diren hainbat jardun-
-mota, hauek sortutako elkarreragina eta horien bitartez lortutako hiz-
kuntz ikaskuntza analizatzen ditugu artikulu honetan*

Sarrera

Ikasgelan, H₂ irakasteko sortzen diren elkarreragin-motak analizatzean, hauxe da kontuan hartu beharreko alderdi bat: ea elkarreragin bakoitzaren oinarri izatea nahi dugun ekintza didaktiko bakoitzak benetan aurrez helburu linguistiko bat erabakia duen ala ez. Helburua aurrez erabakia dutenetakoa bada, H₂ren alderdi formalen bat ikasteko xedea izango du ekintza horrek. Horrelakoa ez bada, aitzitik, ekintza horren xedea elkartruke komunikatibo berekasakoak sortzea izango da, eta ikasleak, egoerari irtenbidea aurkitzeko, eskura duen edozein baliabide hizkuntzazko nahiz ez-hizkuntzazko erabiliko du. Beraz, oro har, H₂ren irakaskuntzan egiten ditugun ekintza guztiak bereizkuntza horretan oinarrituta deskriba daitezke. Hau da, ikasleei eskaintzen dizkiegun ikaskuntz esperientziak, esperientzia horiek sortzen dituzten elkarreraginak eta horrela sortutako elkarreraginen arteko loturak eta horien bitartez lortutako H₂ren garapena edo hizkuntzaren erabilera-mota edo era horretan sustatutako diskurtsoaren nolakoa.

Ikasgelako ekintzen eskema

Ikasgelan gerta daitezkeen ekintza guztiak, pedagogikoak zein ez-pedagogikoak kontuan hartuz, eta berauei eta sortzen dituzten elkarreraginekin dituzten loturei begiratuz, hiru motatako ekintzak bereiz daitezke: ekintza pedagogikoak, ekintza antolatzaileak eta ekintza sozialak (Ellis, 1987).

Ekintza pedagogikoak irakasleak helburu pedagogiko zehatz bat lortu nahian antolatu dituenak dira. Bi sailetan bana daitezke: H₂ko puntu bereziren bat irakatsi eta ikastea helburu dutenak, eta ikasgelaz kanpoko komunikazioaren antzeko bat sortzea beste helbururik ez dutenak.

Lehenengoetan, bai irakaslea bai ikasleak H₂ren alderdi formaletan arretaturik daude. Ekintza hauek planifikatutako diskurtsoak sortuko dituzte.

Bigarren sailekoetan, igorritako mezuan jarria dago arreta eta berbaldi espontaneo eta planifikatugabeak sortzen dira.

Aldi berean, beste bi eratako ekintzak ere izaten dira ikasgelan. Antolakuntz ekintzak izenekoek ikasgelako jarduna oso-osorik eragin-kortasunez burutzeko balioko dute. Pedagogia eraginkorra sustatuz, nahi dituen xedeak lortzen lagunduko diote irakasleari, ikasleentzako ulergarri izango baita eta ikasgelan hasitako ekintza maneiatzeko modua emango baitiote.

Ekintza sozialetan, azkenik, irakaslearen eta ikasleen arteko harreman komunikatiboak oinarrian pertsonalak izango dira eta ez pedagogikoak. Hauetan ere, lehenengoetan bezalaxe, berbaldi planifikatugabea sortuko da.

Elkarreragin-mota desberdinen arteko loturak eta H₂an garapena

Ikasgelan sortzen diren elkarreraginen arteko loturak eta era horretan H₂ren garapenean lortzen diren emaitzak kontuan hartuz, beharrezko dirudi galdetzea ea nola sustatzen den hobeto hizkuntzaren ikaskuntza: aldi berean dirkurtsu planifikatugabea eta planifikatua dakartzaten ekintzen bidetik edo hobe ote litzatekeen ekintza-klase horietako batean bakarrik aritu, bereziki diskurtso planifikatugabe eta berekasakoa sortzen dutenetan. Gogoan eduki dezagun lehenengo erako diskurtsoa sortzen duten ekintzen helburua berauek egin aurretik H₂ren alderdi formalean bat ikastea dela. Besteen xedea berekasako elkartruke komunikatiboak sustatzea besterik ez da; eta, ondorioz, planifikatugabeko diskurtsoa sortzen dute.

Aintzat hartu beharrekoa da ikasleek, ezein berezko hiztunek bezala, ikasitako H₂ era askotan erabiltzen dutela, hizkuntzaz baliatzeak era askotan erabiltzea esan nahi baitu, eta, ondorioz, diskurtso-mota planifikatu eta planifikatugabeko desberdinetara joko dutela, segun eta egoera, solaskidea, hitzaldiaren testuingurua eta xede komunikatiboa nolakoak diren. Beraz, bi eratako hizketaldiak garatu beharrean daude, bata bezala bestea eguneroko elkartruke komunikatiboetan behar diren hizkuntz erabileren isla baitira. Gizarteko bizitzak eskatzen dituen komunikazio-eskarietara erantzun dieten diskurtso planifikatua eta planifikatugabea ekoizteko hizkuntz abialdada emango dioten elkarreraginak lantzeko ekintzez baliatu beharrean gaude. Bestalde, H₂ ikasgelan erabiltzeak duen garrantzia ere azpimarratu nahi genuke.

Itzultzailea: Boni Urkizu

Aipuak

Ellis, R. 1987. "Second Language Acquisition in

the Classroom" *Sisenes Jornades Pedagògiques per a l'ensenyament de l'Angles*. Barcelona, 1987.